

**Aitortza 'Zurekin' eredu komertzial berriari**

**GAUR EUSKAL MERKATARITZAKO 2014KO  
BERRIKUNTZA SARIA JASOKO DU EROSKI-K**

- **Bezereenganako arreta pertsonalizatuagoa, tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen aldeko apustu indartsua, elikagai osasungarrien promozioa eta eguneroko erosketan dirua aurrezteko modu berriak dira Zurekin dendaren oinarriak**
- **Hil honen amaieran, EROSKI Kluba aterako da, eta hura izango da ardatz nagusia promozioetarako, produktu berriak merkaturatzeko eta kontsumitzaileak kooperatiban parte hartzeko**

**Elorrio, 2014ko urriaren 7a.-** [EROSKI](#)k [Euskal Merkataritzaren 2014ko saria](#) jasoko du Eusko Jaurlaritzaren eskutik, Merkataritza Berrikuntzaren eremuan. Iñigo Urkullu lehendakariak emango dio saria Agustin Markaide EROSKIko presidenteari, arratsalde honetan, Getariako Balentziaga museoan.

*"EROSKIrentzat oso inportantea da berrikuntzan egindako ahalegina aitortzea, orain 'Zurekin' denda eredu berria sendotu dugun honetan eta dendan eraldaketa hedatzen ari garen honetan", esan du EROSKIko presidentek. "Ez da dudarik; Zurekin denda ez da soilik eraldaketa fisikoa, gure antolamenduan aldaketa kultural handia ekarriko baitu", gehitu du. Kooperatibaren 'Zurekin' leloak EROSKIren norabidea markatzeko balio du, baita, zenbait ardatzetan oinarrituta, bezeroari aukera berriak eskaintzeko ere.*

**Osasuna eta ongizatea**

EROSKIek elikadura osasungarriarekin duen konpromisoa erakusteko, zenbait neurri berritzaile jarri dira martxan; esaterako, landare-olio partzialki hidrogenatuetako "trans" gantzak eliminatzea marka propioetan, eta aurrenak izatea nutrizio etiketatze aurreratuan —*Semaforo nutrizionala* izenekoa—; horren bitartez, kontsumitzaileek erraz ezagutu dezakete dute ontzitik bertatik, bai erostean bai kontsumitzeko orduan, produktuaren errazio batek zenbat kaloria eta osasunerako elikagai gako dituen —azukrea, gantza, gantz saturatua, gatza eta zuntza—.

Osasunaren aldeko konpromiso hori bera du higienerako eta zainketa pertsonalerako produktuekin. EROSKIek eliminatu egin ditu parabenoak eta triklosanak bere markako produktu kosmetiko guztietatik eta eskusiboki merkaturatzen duen belle® markatik; hala, Espainiako lehen banatzaile marka da horrelako gehigarri kimikoak eliminatzen; izan ere, eztabaida sakona izaten ari dira komunitate zientifikoan eta gero eta kezka handiagoa eragiten dute kontsumitzaileengan.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)

Hala berean, EROSKI eta EROSKI fundazioa lanean ari dira elikadura osasungarrira begirako hainbat ekimen sustatzeko, eta orain gutxi, EROSKI Elikadura Eskola sortu dute.

### **Aurrezpena**

Aurtengo lehen seihilekoan, kontsumitzailearen aurrezpen transferentzian kooperatiba 36 milioitara iritsi zen, %2,5 inguru jaitsi baitzituen prezioak; freskoetan, berriz, bikoitza izan zen jaitziera, eta beste zenbait eskaintza eta promozio ere egin zituen. EROSKI Klub txartel berria aterata, urteko 100 milioi eurotara iritsiko da aurrezpen transferentzia; horrenbestez, aurrezpen eta fidelizazio politika indartuko da hala.

### **Tokiko produktuen aldeko apustua**

EROSKI argi eta garbi ari da bere Plan estrategikoaren bitartez tokiko ekonomiaren garapenaren alde eta nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpen ehunaren aniztasunaren alde.

'Zurekin' ereduak protagonismo berezia ematen die tokiko produktuei, gero eta estimatuagoak baitira, eta, bereziki, sasoiko elikagai fresko guztiei, elikadura osasungarri baterako oinarria baitira. Izan ere, EROSKI konpromisoa hartua du tokiko ekonomiak garatzen laguntzeko; hori dela medio, nekazaritzako elikagaien industriako 4.679 hornitzaileekin aritu da lankidetzan azken urtean, aurrekoan baino 114 gehiagorekin.

EROSKIren denda bakoitza plataforma ireki bat da eskualdean ekoiztako elikagaiak merkaturatzeko. Bestalde, EROSKI elkarlanean ari da Jatorri Izen eta Adierazpen Geografiko Babestu guztiekin. Horrekin guztiarekin, tokiko produktu sortarik zabalena ari da eskaintzen bezeroei, tradizioaren egiazkotasuna gaur egungo kontsumitzaileari helarazteko etengabeko berrikuntzari esker. Ardatz horretan, EROSKIren gogoia da bere bezeroei erakustea EROSKI dela tokirik onena eskualdeko elikagairik esanguratsuenak erosteko.

### **Bezeroarenganako arreta**

EROSKIIn, kontsumitzaileak enpresaren parte dira, eta zenbait parte hartze kanal dituzte kontsumitzaileen ikuspegia EROSKIren estrategian txertatzeko. Izan ere, Zurekin eredu komertzial berria osatzeko, EROSKIren milaka ohiko bezero aritu ziren parte hartzen, ekarpenak, iritziak eta iradokizunak eginez, eta hala, kooperatibaren eredu komertzial berria egituratu dute.

EROSKIri bigarren urtez jarraian aitortu diote bezeroarenganako arretarik onena duen banatzaile enpresa dela. Sotto Tempo Advertising aholkularitza enpresak eman dio sari hori, kontsumitzaileek berek aukeratuta zein den bezeroarenganako arretan kalitaterik oneneko erakundea sektore jardueraka.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)

## **Nortasun kooperatiboa eta autogestioa**

Kultura kooperatibo indartsua oso agerikoa da EROSKIren erabaki guztietan. EROSKIren eredu sozioenpresariala aurrendaria da sortu zenetik; bazkide kontsumitzaileak berak eta bazkide langileak maila berean egon dira kooperatibaren erabaki organoetan.

'Zurekin' denda eredu berria kudeaketa kooperatiborako ikuspegi hori hedatzen ari da erakundearen eremu guztietara, baita dendetara ere. 'Zurekin' dendak atxikia dauka autogestio eredu bere taldeen bitartez; hala, talderik aurreratuenak aitortuta daude, eta ikaskuntzak trukatzan dituzte, erreferentzia izan daitezen gainerako dendetan.

## **EROSKI Kluba: harreman berria bezeroekin**

EROSKI Kluba hilabete hondarrean jarriko da martxan. Fidelizatzeko programa berri, doako eta masibo bat izango da, EROSKI markarekin ari diren negozio guztietarako. Travel Club programa ezagunak emandako pausotik harago joango da, eta kontsumitzaileek Travel Clubeko puntuak pilatzen eta trukatzan jarraituko dute, baina beste abantaila mordo bat ere izango dute eskura, bai alde ekonomikotik bai zerbitzu gehigarrien eta kooperatiba loturen aldetik.

Txartel berriak prezio bereziak txartelaren jabeentzako, eta, gainera, eskaintza eksklusiboak eta Travel Clubeko puntu estrak eta deskontu pertsonalizatuak izango dituzte. EROSKI Klub txartel berriak "diru-zorro" funtzioa izango du, bezeroaren deskontu guztiak hartan pilatuko baitira, txartel bakarrean, EROSKIren edozein dendatan erosketak egiten dituenarako.

## **Online merkatuaren garapena**

Sariak era berean aitortu dio merkatu elektronikoaren alde EROSKI egin duen apustu estrategikoa. Aspalditik ari da ahalegin horretan, eta azken urtean %35 gehiago zabaldu du [www.eroski.es](http://www.eroski.es) online supermerkatuaren sorta; hala, gaur egun, 12.000 erreferentziatara iritsi da. Bestalde, Bizkaian, aurrendaria izan da *click&drive* ezartzen; haren bidez, hipermerkatuko parkingean autotik atera gabe har daiteke online supermerkatuan egindako erosketak.

## **47 Zurekin denda**

EROSKI gaur egun 47 Zurekin denda ditu: zortzi hipermerkatu eta 39 supermerkatu. Horretarako, hemeretzi milioi euro inbertitu dira, eta 320 lanpostu sorrarazi ditu, eta 40.000 prestakuntza ordu baino gehiago eman dira.

'Zurekin' denda berrietan, %9 handitu da supermerkatuetako salmenta eta %6 hipermerkatuetakoa. Salmenta are handiagoa ekarri du produktu freskoetan: %18 supermerkatuetan eta %13 hipermerkatuetan.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)

EROSKIko presidentearen ustez, "Zurekin denda berrietan salmenta eta bezero kopurua igota, berretsita gelditzen da EROSKIren eredu komertzial berria; sari horretaz gainera, kontsumitzaileen babesa du. Gure bezeroek modu baikorrear erantzun diote proposamen berriari, eta, gainera, eguneroko erosketan aurrezten laguntzen du, hautatzeko aukera ematen du, protagonismo handia ematen dio tokiko elikagai freskoei eta osasungarriei eta, gainera, horiekin lotura estua eratzen du".

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)